

Bremengo Musikariak

Claudio Casadio-ren sorkuntza



PARAISO ANTZERKIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZA ZENTROA

GIDA DIDAKTIKOA

IKUSKIZUNERA HURBILTZEA

Oso garrantzitsua da ikusleek ikusiko duten ikuskizunari buruzko erreferentzia batzuk izatea.

Egingo duen konpainiaren, egilearen, izenburuaren edo lantzen duen gaiaren informazioa izateak ikusleen jakin-mina pizten eta lan artistikoa entzuteko alde aurretik prestatzen lagunduko du. Lanaren pertzepzioaren kalitatea, hein handi batean, ikusleriak lanarekin gozatzeko duen interesaren arabera da.

1. IZENBURUAREN BILA

Izenburuak lan artistiko bati izena jartzeko balio du, kasu honetan antzezlan bati. Askotan, entzuten duen ikusleari horrekin zerikusia duten irudiak edo erreferentziak gogorarazten dizkio.

Ikuskizun honen izenburua asmatzeko argibideen jolas bat proposatzen dizuegu. Jolas honek gelan dauden guztien parte-hartzea eskatzen du.

Jolas honetarako honako hau behar dugu: lastoz beteriko saski edo kaxa bat, lau gutun-azal, bi gutun eta bi puzzle (azken bi horiek gida didaktiko honi atxikiak daude).

Lastoz beteriko saski edo kaxa bat gelara heltzen da, zein arraroa! Nork ekarri ote du? Zer dakar? Guretzat izango ote da? Galderak haurren buruetan pilatzen diren bitartean, irakasleak planteatutako zalantzak argitu ditzakeen pergamino bat azalduko du.

Mezua antzezlan bat ikustera joateko gonbidapen bat da, eta horren izenburua asmatu beharko dute. Horretarako, beharrezkoa izango da bi talde egitea, eta lastoan dauden bi gutunetan datozen argibideak argitzea.

Argibideak bi puzzle dira, eta bere esanahia asmatzeko paper baten gainean berregin beharko dira. Lehenengoa Picassoren “Musikariak” koadroaren kopia da, bigarrena, berriz, Alemaniako mapa hainbat hirirekin, horien artean Bremen.

“Musikariak” eta “Bremen” elkartzen baditugu, ikuskizunaren izenburua izango dugu:

Bremengo Musikariak



Gero, gela bakoitzak aurkitutako izenburua Paraiso Antzerki Taldeari bidaliko dio eta egun batzuen buruan gutun bat jasoko dute emanaldira joateko sarrerekin. Gutun horretan taldeko lanaren garrantzia eta helburu bat elkarrekin lortzeak dakarren poztasuna nabarmenduko dira.

2. TALDE ARTISTIKOA

Antzerki ikuskizun bat amets bati forma emateko elkarrekin lanean diharduten artista eta profesional ezberdinen lanaren emaitza da.

“BREMENGO MUSIKARIAK” ikuskizuna Italiako Accademia Perduta – Romagna Teatri eta Gasteizko Paraiso Antzerki Taldearen arteko proiektuaren zati da, 2006/2007 denboraldian 30. urteurrena ospatuko duena.

Talde artistikoa pertsona askok osatzen dute. Lau aktore-musikariez gain, agertokian ikusiko ditugunak (Eriz Alberdi, David Errasti, Leire Olanan eta Inazio Tolosa) eta argi- eta soinu-teknikariaz gain (Javier García), profesional ezberdinek hartu dute parte espazio eszenikoaren, jantzien, mozerroen eta atrezzoaren, publizitatearen, etab.en diseinuan eta zuzendaritzan.

Garrantzia berezia izan du Paco Ibañezek koordinatutako musikari ezberdinen partaidetzak; aktoreekin lan egin dute eta musika-konposizio batzuk grabatu dituzte.

Talde guztiaren zuzendaria Claudio Casadio izan da, antzerkirako bertsio berezi honen egile-kidea dena. Bertan, errimadun testua musikarekin batzen da giro bizia eta poetikoa eratzeko.



IKUSKIZUNAREN OIHARTZUNA.

“BREMENGO MUSIKARIAK” izen bera daraman Grimm Anaien ipuin famatuan dago oinarritua.

Alegia honek bizitzeko grinaz, ametsak lortzeko laguntasunak eta taldeak duen garrantziaz dihardu eta nola Arteak, kasu honetan Musikak, bizitza hobea bilatzen lagun diezagukeen.

Ikuskizuna amaitzen denean, honek ikusleen bihotzetan utzitako oihartzuna aztertzeko unea heltzen da.

Taldeko dinamika ezberdinak bultzatzea proposatzen dizuegu, ikuskizunaren gaiak protagonistak izanik.

1. IDENTIFIKAZIOA.

Identifikazioa istorioko pertsonaiekin landu daiteke, haurrei une batez begiak ixteko eta lau animaliak imajinatzeko proposatuz, horietariko bakoitza nolakoa zen gogoratuz: astoa, txakurra, katua eta oilarra. Gero animalia bat hautatzera gonbidatuko ditugu galdera bat eginez: Ni horietariko bat banintz, zein gustatuko litzaidake izatea? Beren erabakia arrazoitzeko ere eska dakieke.

2. BIZIMODUA ALDATZEA.

Behin hautatu ondoren, lantalde txikiak sortu daitezke. Horietariko bakoitzak bi zerrenda egingo ditu. Lehenengoan, hitzek istorioaren hasieran animalia horrek duen bizimodua eta sentimenduak definitu behar dituzte. Bigarreanean, hitzek musika taldeko kide izatera igarotzen deneko unea islatu behar dute.



Jardueraren hurrengo urratsa talde bakoitzaren ekarpenak komunean jartzea eta eztabaidatzea izango da.

3. AMETS BAT: BREMEN.

Lau dira Bremengo musikariak, eta lau izan daitezke esperientzia jarraitzeko sortutako talde berrien kideak.

Orain Bremen nolakoa den imajinatu behar dute, edo beren ametsetako hiria nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen.

Amaitzeko, talde guztien ekarpenekin mural bat egin daiteke.

Bremen da poesia, dena ilusio, dena fantasia. Bremen kantu kultura, oportetako lehen eguna, Bremen da.....

4. PROIEKTU KOMUNA: MUSIKA TALDEA.

Antzerki ikuskizun bat edo musika talde bat eratzea partaideak elkarlanean aritzeko ariketa bat da, eta bestearengan konfiantza izateko eta elkarrekin bidea eginez ondo pasatzeko modua.

Gelako haur guztiekin musika talde handi bat eratzea proposatzen dizuegu, ikuskizuneko doinu batzuk eta haurrek aukeratutako beste batzuk interpretatzeko.


Horretarako irudizko musika-tresnak eratzea proposatzen dizuegu, turutak, kolorezko tutu malguak, inbutuak eta beste material batzuk erabiliz:

- ★ Musika-tresnari forma eman material ezberdinak aztertuz eta beharrezkoa denean margotuz.
- ★ Turuta jarri eta sonoritatea frogatu.
- ★ Denon artean doinu baten saioa egin.

Dagoeneko has zaitezketen taldearen saioak egiten eta zuen abenturaz gozatzen.



ALEMANIA



Hamburg

Bremen

Berlin

Cologne

Freiburg

Frankfurt

Heidelberg

Munich

